

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteazkena, 2012ko urriaren 10a. IX. urtea. 2.413. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Artzain-andrez jantzita aurkeztu dute jai eguna, Arozetxe baserriaren aurrean. A. IMAZ

Sega ikastaro batekin hasiko da Euskal Jaia

Bosgarren urtez egingo dute festa eguna Anoetan; larunbatean izango da ikastaroa eta ekitaldi nagusiak igandean zehar egingo dituzte ◦2

Burdinak Leitzako Tolare meatze barrutiko zati bat berreskuratu du

Taldeak lehenengo galeriako karobi eta meatzeak zaharberritu ditu eta ia herritarrei erakusteko prest utzi dituzte; orain hiru urte hasi ziren barruti honetan lanean ◦5

25. urteurrena beteko du etzi, Tolosako Herri Krosak

Shanti Kirolak dendan eman daiteke izena proba eguna baino lehen, nahiz eta egunean bertan ere izango den aukera; sariak banatuko dituzte irabazleen artean ◦6

Herbereheetako 24 ikasle daude Tolosan, Orixe institutuko gazteekin batera

Harrera ekitaldia egin zieten atzo, Tolosako udaletxean; Horn herriko Sint Ursula institutuko ikasleak dira eta bi irakasle ere etorri dira ◦4

Urriaren 16an aterako dute Otamendiren salaketaren epaia

Martxelo Otamendi kazetari tolosarraren tortura salaketaren inguruko erabakia emango du datorren astean Estrasburgok ◦7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea



V. Euskal Jaia larunbatean hasi eta igandean amaituko da

Erosketak egiteko poltsak etxetik eramatea eta baserriarrez jantzita joatea eskatu dute

hasiko da, eta iluntzera arte ez du atsedetik hartuko: baserriar eta artisauen azoka, herriko musika-riak, bazkaria, talogileak, erro-meria...

Baserriarrez jantzita

Euskal Jaia tradizio bilakatzeko bidean doa Anoetan. Usadioa jada badena, antolatzaile taldeko herritarren aurkezpen ekitaldia da; artzain-andrez jantzita, eguna iragartzen duen kartela eskuan, eta umorea ezpainenat.

Bosgarren edizioa berezitasu- nekin datorrela iragarri zuten le- henik eta behin, eta herritarrei hainbat eskari luzatu zizkieten: «Anoetarrok bost urte darama- tzaigu gure naziotasuna arrotasu- nez aldarrikatzen Euskal Jaian, eta orain, Espainiako gobernutik udaletxean euren bandera jartze- ra behartu gaituzte. Honen aurre- an, herritar guztiei balkoietan ikurrinak jartzea eskatzen die- gu».

Herria ikurrinaz jantzita ikusi nahi duten bezala, herritarrek ba- serriarrez jantzita ikusi nahi di- tuzte antolatzaileek. Horregatik, festara artzain-andrez joatea es- katu diete haur, gazte eta helduei.

Asier Imaz Anoeta

Urriko bigarren igandearekin ba- tera, Anoetan Euskal Jaia antola- tzeko ohitura hartu zuten duela bost urte. Artzain-andre jantziak soinean, herria dantzan jartzen dute anoetarrek, euskal produk- tu eta usadioak lau haizetara za- balduz.

Aurtengo festa larunbatean hasiko da, sega ikastaro batekin. Arozetxe baserriaren ondoan da- goen zelaian, etorkizuneko sega- lariak herri kirol eder honetaz go- zatzeko aukera izango dute, sega munduan lehen urratsak emana- z. Gazte zein heldu, herritar guztiak gonbidatu dituzte antola- tzaileek, hau da, udalaren babes- arekin lanean aritu diren herrita- rrek. Iluntzean, biharamuneko egun handia prestatzen hasiko dira, txekorra errez. Igandean, hi- laren 14an, Euskal Jaia 09:30ean



Arozetxe baserriaren aurrean aurkeztu zuten Euskal Jaia 2012, atzo, artzain-andrez jantzita. A. IMAZ

↓ Egitaraua

URRIAK 13, LARUNBATA

- **17:30.** Sega ikastaroa Aroze- txe baserriko zelaian.
- **Iluntzean.** Txekorra erretzea.

URRIAK 14, IGANDEA

- **09:30.** Herriko txistularien ka- lejira.
- **10:00-13:30.** Eskualdeko ba- serriar eta artisauen azoka pla- zan, dultzaineroek eta Donos- tiako joaldunek alaiturik. Euria egiten badu, frontoian.
- **Goizean zehar.** Euskal jan- tzien erakusketa. Lourdes Esna-

olak euskal jantzien erakusketa jarriko du, eta hainbat jantziaren inguruko azalpenak emango ditu 12:30ean. Jantziak erosteko aukera ere izango da. Buruko zapiak jartzen eta abarkak lotzen ere erakutsiko du Esnaol- lak.

■ **12:00.** Jaiaren aurkezpena txalapartarekin, dantzariekin eta Loatzeko musika eskolako txarangarekin.

■ **Ondoren.** Postu politenaren sari banaketa, eta ardo dasta- tzea, Bentaldea Bodegoiaren eskutik. Kopa eta pintxoak 2 eu- rotan egongo dira eskuragai. Lo-

atzoko trikitilariak alaituko dute giroa.

- **13:30.** Baserriko produktuen saskiaren zozketa.
- **14:00.** Herri bazkaria fron- toian: letxuga, txanpinoiak, txek- korra errea eta euskal pastela. Dultzaineroek alaituko dute bazkalostea.
- **17:30.** Haurrentzako talo taile- rra.
- **17:30.** Soka tira saioa.
- **18:30.** Anoetako dantza tal- dearen emanaldia.
- **19:00.** Talogileak eta errome- ria plazan, izer eta Alabierren eskutik.

Anoetako Udalak batzar ire- kiak antolatu ditu azken hilabete- an Euskal Jaia antolatzeko. Her- ritarrek eta herriko eragileek jaiaren antolakuntzan parte har- tzeke aukera izan dute. Auzolane-

an antolatu dute guztia, eta egu- na bera ere, modu horretan era- man nahi dute aurrera. Horreta- rako, lanerako prest dauden anoet- arrei zerrendan izena ematea es- katu diete.

Kultur eta Kirol Astea antolatzeko bilera egingo dute, gaur

A. Imaz Anoeta

Anoetan Kultur eta Kirol Astea antolatu nahi dute azaroaren 12tik 18ra bitartean. Herritarren parte hartzea bultzatzeko, bilera irekia egingo dute gaur, hilak 10, 19:00etan udaletxean. Udaletik herriko taldeei eta, oro har, herri-

tarrei bertara agertzeko eskatu die. Bestalde, udalak Qi-Gong ikastaro antolatu du urritik abendura bitarte. Qi-Gong ikasta- roa menopausiarekin loturiko ikastaroa da, eta garai hau bizi- tzeaz edo bizi berri duten emaku- meezi zuzendua dago. Irakaslea Jone Arrospide izango da, eta kla-

seak ondorengo egunetan izango dira: urriak 18, azaroak 8 eta 22, abenduak 13 eta 20ean, edo 27an. Mikelasagasti auditorioan elkar- tuko dira 18:30etik 20:30era. Ber- tan parte hartu nahi duenak 45 euro ordaindu beharko ditu, eta udaletik azaldu dutenez, oraindik izena emateko aukera dago.

→ Laburrak

Egoitz Lasa ipuin kontalaria, gaur, 18:00etan

LARRAUL › Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitateak Egoitz Lasa ipuin kontalaria Larraulera era- mango du gaur, hilak 10, 18:00etan. Lasak bertaraten diren guztiei ipuinak kontatuko dizkie, Larraulgo liburutegian, hain zuzen ere. Mankomunita- tetik herri haur eta gaztetxo guztiak gonbidatu dituzte ipuin kontalariaren emanaldira.

Behar Zana Pilota Elkartean webgunea

AMASA-VILLABONA › Behar Zana Pilota Elkartean web orria jarri du martxan: www.behar-zana.kzcomunidad.net. Elkartetik bazkide eta herritar guztiei zabaldu nahi izan diete albistea, eta bertan sartzeko deialdia luzatu diete. Behar Zanaren inguruko albiste eta deialdiak jarraitzeko.

Ipuin lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik da

ZIZURKIL › Teodoro Hernando- rena XI. Ipuin Lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago, eta azaroaren 23ra arte horrela egongo da. Aduna, Alkiza, Aste- asu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek dute parte hartzeko aukera eskualdean. Lehiaketa bost maila desberdinetan banatu dute, adinaren arabera; 6 urtetik gorakoek dute lanak aurkezteko aukera Zizurkilgo udal bulegoetan. Informazio gehiago, edo lehiaketaren oina- rriak ere bertan daude.

Igandeko bazkariko txartelak salgai daude

ZIZURKIL › XV. Azoka Berezia antolatu dute hilaren 14an, igandean, Zizurkilen. 14:30ean herri bazkaria egongo dute Zerritorioan, eta txartelak aldez aurretik erosteko aukera jarri dute Iriarte, Egarrri eta Atxulondo tabernetan. Prezioa 18 euro- koa izango dela jakinarazi dute azokaren antolatzaileek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Gidariak.** B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gabiltza. Interesatuek, deitu 654 05 17 78 telefono zenbakira.

■ **Mantenerako pertsonala.** Obra publiko eta zerbitzu oro- korretarako langile bila gabiltza. Interesatuek, deitu 654 05 17 78 telefono zenbakira.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →

Pasa den astelehenean Zerkausian izan zen Iñigo Urkullu lehendakariagaia. I. URKIZU

Urkulluk «bakegintzaren lantaldearen bidea berriz hartu» behar dela esan du

EAJ alderdiko lehendakariarekin batera, Joseba Egibar eta Joseba Azkarraga ere izan dira Zerkausian

I. Urkizu Tolosa

Tolosako Zerkausian izan zen, pasa den astelehenean, EAJren lehendakariagaia Iñigo Urkullu, eta Eusko Legebiltzarrean abian jarri zuten bakegintzaren lantaldearen biderei jarraitzeko beharra nabarmendu zuen hautagaiak.

Jeltzaleen erronka «bakea irabaztea» dela esanez hasi zuen mintzaldia Urkulluk: «Ez nuke nahi, inola ere, nire seme-alabek borroka horretan jarraitu behar izatea». Ido berari eutsi zioten, gainera, Joseba Egibarrek eta Joseba Azkarragarekin.

Bide horretan, Espainiako Gerra eta ondorengo diktadura gogora ekarri zituen Urkulluk, eta «odola isurtzea justifikatuko duen aberririk, erlijiorik, nahiz

idea politikorik ez» dagoela nabarmendu zuen.

Horrela beraz, eta «EAJren proiektuaren gako pertsona» dela esanez, bakegintzako lantaldeaz aritu zen Iñigo Urkullu. Izan ere, legegaldi honen azken zatian Eusko Legebiltzarrean abian jarri zuten lantaldeari garrantzia eman zion lehendakariagaia; «akordio politiko handi baterantzako bidea egin, eta bakea eta elkarbizitza sendotzeko» tresnatzat du bakegintza lantaldea Urkulluk. «Bide horri jarraitzea

eman behar diogu. Helburu hori berrartu eta indartu egin behar dugu. Legegaldi honetan 72 legebiltzarkideren babesa lortu baldin badu, legegaldi berrian 75 legebiltzarkideren babesa lortzea behar dugu», azpimarratu zuen Urkulluk.

Amaitzeko, alderdi guztien arteko akordio baten beharra azaldu zuen, «giza eskubideak, biktima guztien aitortza, iraganarekiko memoria kritiko eta etikoa, nahiz alde guztien arteko elkarrikeria moduko printzipioekin».



Urkulluz gain, EAJko hainbat kide izan ziren Tolosako ekitaldian. I. U.

Xabier Isasi eta Pello Urizar izango dira gaur, EH Bilduren mitinean

I. Urkizu Tolosa

Euskal Herria Bilduren mitina izango da, gaur, 19:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan; Xabier Isasi eta Pello Urizar izango dira hizlariak.

Datorren urriaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde-

tan, Gipuzkoako zerrendaburua izango da Xabier Isasi. Pello Urizar, berriz, bigarren lekuan joango da Gipuzkoako zerrendan.

BECera joateko autobusak
Larunbatean BECen izango den EH Bilduren mitinera joateko autobusak antolatuta dituzte.

Tolosan, Denak, Raku eta Elurra tabernetan eman beharko da izena, eta autobusa 15:00etan irtenango da San Frantziskotik, larunbatean.

Anoetan, berriz, Itzuli tabernetan eman beharko da izena, EH Bilduren mitin nazionalera autobusez joateko.

Langile eta langabeentzako ikastaroak Tolosaldea GLHIIn

Informatika, mantentze nahiz mekanikaren esparrukoak izango dira eskainiko dituzten ikastaroak

I. Urkizu

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan langile nahiz langabeentzako dohako ikastaroak hasiko dira datorren urriaren 15ean.

Antolatzaileek, oraindik ere leku libreak badirela azaldu dute, eta izen eman nahi duenak, ikastetxera bertara deitu beharko du, 943 65 11 47 telefonora. Ikastaroan honakoak izango dira: Sistema eragilea (Windows), Informazio bilaketa: Internet / Intranet eta posta elektronikoa, Txirbil harroketako bidezko prozesuen mekanizazioa (tornua), Planoen interpretazioa soldaketan eta Klimatizazio instalazioen konfigurazioa eta kalkulua.

Bidaia blog bat nola egin irakatsiko dute Bidaiarien Txokoa

Asteazken iluntzeetan elkartuko dira Errotako eraikinean, eta ikastarora sarrera dohakoia izango da

I. Urkizu

Antxon Bandres bidaiarien txokoa bidaia blogak egiten ikasteko ikastaroa antolatuta dute, asteazken iluntzeetan.

Wordpress-en bitartez bidaia blogak nola sortzen diren ikasteko aukera izango da, asteazkeneko, 18:00etatik 20:00etara bitarte.

Sarrera dohakoia izango da, eta gehienez ere 10 pertsonak parte hartu ahal izango dute. Ikastaroa, gainera, bikoteka egin ahal izango da, eta bikote bakoitza bere ordenagailu eramangarriekin joan beharko du ikastarora.

Izena emateko, bidaiari@bidaiarietxokoa.info helbidera idatz daiteke, eta baita 688 81 05 98 telefonora deitu ere.

→ Laburrak

1972. urtean jaiotakoen festa azaroaren 3an

GIARTEA ▶ 1972. urtean jaiotakoen festa antolatu dute Tolosan, azaroaren 3rako. Ospakizunean parte hartu nahi dutenek datorren urriaren 14a baino lehen eman beharko dute izena. Horretarako, Kutxa-ko 2101 0067 23 0128380557 kontuan 60 euro sartu beharko da, norbere izen-abizenekin, eta antolatzaileek, pertsona bakoitzak diru sarrera bat egin behar duela nabarmendu dute. Informazio gehiagorako: 40urte1972@gmail.com helbidea, edo Facebook-en [Berrogeiurtehirurogeitamabi](#) orria.

Euskal Herria Sozialistaren bilera irekia, gaur

GIARTEA ▶ Euskal Herria Sozialistaren bilera irekia izango da, gaur, 19:15ean. Bilera Tolosako Errementari kaleko Engels Ateneoan izango da, eta besteak beste, pasa den irailean 26ko greba orokorrak jarraitzea izan dezan, «denboran luzatuko den borroka planaz» ariko dira billkuran.

Adimeneko gaixoen sendeentzat hitzaldia

OSASUNA ▶ AGIFES elkarteak antolatuta, adimen gaixotasunak dituztenen sendeentzat hitzaldia izango da, gaur, 19:00etan, kultur etxean. Yolanda Iglesias psikologoa izango da *Cuidarse para cuidar* saioko hizlaria.

Donostia aldeko logistika enpresa batek **KOMERTZIALA** behar du,
C/Ipuzkoa eta inguruko herrialdeetan
lan komertziala egiteko.

Ekitaldian da:

- Gaitasun eta gaitasunaren berri emateko
- Komertzial lanetan espezializazioa
- Herriko lanetan espezializazioa
- Gaitasunaren berri emateko

Bidali curriculuma gizabaliabideak@bidera.eu helbidera,
KOM-ET-2012 erreferentzia jarrita.

Gutuna

Leitzako mugako kontakizunak

Mugako kontakizunak kapitulu zabala dute euskaldunen memorian. Kontrabandisten gorabeherak, naziek okupatutako Europatik aliatuak eta iheslariak eramaten zituen Comète sarea, gaizkileen muga delakoko erasoak... Bistakoa da Euskal Herriak ez dituela naturaltasunez onartu bere lurraldea zatikatzen duten marra ugariak.

Nabarralderen Kongresuak gaztelarren konkistaren ondorioei eskaini die bere hirugarren edizioa. Horren atal bat, Leitzan, Nafarroa independentea eta alde zurretik konkistatutako lurraldeen (Araba eta Gipuzkoa) arteko gaizkileen muga horren ingurukoa izan da. Autore klasiko batzuek Gaztelak eskualde horretan egiten zuten presio militarra dokumentatu dute. Gotorlekuen aurkako erasoak (Gorriti, Auza edo Ataun), Beotibarko gudua, Berastegiko edo Hernaniko suteak, ganadu-lapurretak, bide-lapurrak, hilketak...

Alabaina, gorabehera eta arriskuez betetako muga hura sendotu egin zen. 1200eko konkistaren aurretik geografia jarraitua zen, eta populazio, hizkuntza eta bizimodu berberak zituen; Gaztelak bere hiribildu/gotorlekuez erakitako mugak, ordea, bere arrastoa utzi zuen. Ahaide nagusiak atari-zakurren rola betetzeari ekin zioten. Bortizkeria kontakizun bihurtu zen, eta kontakizuna elezahar. Etsaitasuna ideologia bilakatu zen (Floren Aoziek azaldu zuenez). Eta lurraldeak, Gaztelaren interesen

arabera, elkarren aurkako identitateak sortu zituen. Nafar, gipuzkoar, arabar, bizkaitar, nongotasun-sentimendu horiek herrialdea zatikatzen dute, eta zatituta mantentzen. Hori da gaur gure historia ofizial faltututik, probintzietatik egiten diren horretatik, jaso dugun herentzia. Noiz eratu du identitatea probintziakeriak? Euskaldunak gara, euskal naziokoak. Edota, inork nahiago balu, espainolak edo frantsesak, norbera dena.

Nolanahi ere, Leitzako kongresuan ikusi denez, konkistek ekarritako espazio-banaketa hori da gure gauro politikaren funtsa: hor oinarritzen da gure administrazioa, gure lurralde-antolamendua. Horren ondorioa da euskal geografia osoa biltzen duen erakunde bakar bat ere ez edukitzea. Ez dakigu zein izan zen gure Estatu, ez eta nola duen izena ere. Gure iruditeria taifa-erreinuen mito bat du oinarritzat, oso forala eta errepublikazalea izanik ere, puskatan datorrena. Elkar gorrotatzen, burlaka aritzen edo mespretxatzen duten identitateak geure egin ditugu. Are okerrago, gure artean ez dugu ikusten etorkizun libre bat lortzeko beharrezkoa dela nazio bat izatea, hau da, bere burua borondate bakar batean ikusten duen gizataldea.

Ontzat ematen ditugu, Amaiurren gertatu bezala, erdigune izatetik periferia izatera aldatu gintuzten arrazoia. Gerra haiek eta, denboraren poderioz, kontzientzia, burua, galtzearen ondorioak dira.

■ **Angel Rekalde.** Nabarralde elkar-terko lehendakaria.



Elkartrukean parte hartu duten bi herrialdeetako ikasleak eta irakasleak, Tolosako udaletxearen aurrean. I.G.L.

Orixe institutuko ikasleekin batera Herbehereetako 24 ikasle elkartruke batean parte hartzen ari dira egunotan. Atzo Tolosako udaletxean harrera egin zieten.

Herbehereetatik Tolosara

Imanol Garcia Landa Tolosa

Hirugarren ikasturtea da aurtengoa Tolosako Orixe institutuak eta Herbehereetako Horn herriko Sint Ursula institutuak elkartrukea egin dutela. Oraingo honetan 24 ikasle eta bi irakasle herbeheretar daude Tolosan eta hamar egunez izango dira hemen, hilaren 13a arte. Joserra Zalakain Orixe-zuzendariordeak azaldu duenez, Comenius programaren bitartez egiten ari dira aurten elkartrukea, eta beraz hamar eguneko egonaldia egingo dute. Bi urtetaroko programa denez, datorren urtean ere elkartrukea hamar egunez egingo dute, hori bai, beste ikasle batzuk parte hartuko dute.

24 ikasle horiek Orixe institutuko 24 ikasleren etxeetan izan dira. Hain justu, apirilean Orixe-ko ikasle horiek joango dira Horn herriara. «Proiektu honen bitartez, ikasleek beste herrialdeko bizimodua eta ohiturak jasotzen dituzte», azaldu du Zalakainek. «48 ikasleak zortzi lantaldetan bildu

ditugu eta bakoitzean gai bat jorratzen dute, beraien esperientziatik abiatuta».

Inaki Irazabalbeitia Hizkuntza Politika eta Hezkuntza zinegotziak harrera egin zien atzo udaletxean, eta irakasleei opariak egin zizkien udalaren partetik. Tolosari buruzko bideo bat ikusteko aukera ere izan zuten.

Euskaldunak, «irekiagoak»

Sint Ursula institutuko Hetty Huskens irakasleak lehenengo aldiz parte hartu du elkartrukean: «Oso esperientzia ona eta interesgarria da. Bizimodua eta hezkuntza ezberdina da. Gure hezkuntza sisteman dena handiagoa da, eta egituratuagoa dago». Bestalde, Huskens-en arabera, herbeheretarrak itxiagoak dira: «Euskaldunak oso eskuzabalak eta adiskidetsuak dira. Euskaldunak irekiak dira eta asko gustatu zaigu hori». «Proiektu honen bitartez, ikasleek beste herrialdeko bizimodua eta ohiturak jasotzen dituzte», azaldu du Zalakainek. «48 ikasleak zortzi lantaldetan bildu

ditugu eta bakoitzean gai bat jorratzen dute, beraien esperientziatik abiatuta».

Elkartrukean parte hartu duten bi ikasle herbeheretar dira Maan Hermans eta Ilse Van Eck. «Aldeak daude bi herrialdeen artean», esan du Hermans-ek, eta gaineratu: «Hemen lasaiago bizi dira. Asko ikasten ari gara herrialde honetaz, bakoitza familia batean gaude egonaldian eta asko gustatzen zait Tolosa eta inguru-nea». Van Eck ere iritzi berekoa da: «Asko atsegin dut hemen egoitea, jendea oso jatorra da, nire hemengo familia ere oso jatorra da». Janari kontuetan ezberdintasunak nabarmendu dituzte bi ikasleak: «Hemen gehiago jaten da eta beste ordutegi bat dute». Ikastetxe motari dagokionez, Herbehereetan ordu gehiago izaten dituztela azaldu dute.

Bihar arratsaldean jaialdi berezia eskainiko diete ikasle herbeheretarrek hemengo ikasle, familia eta lagunei, bere herriko joko eta denborapasekin. Orixe-ko ikasleek Herbehereetara joaten direnean ere jaialdi bat prestatu beharko diete.



Inaki Irazabalbeitiak opariak banatu zizkien Herbehereetatik etorri diren irakasleei. I.G.L.

Burdina taldeko kideak Leitzarango Tolare meatze barrutian aritu dira zaharberritze lanetan; orain herritarrei erakutsi nahi dizkiete bertan azaldutako meategi eta karobiak.

Berreskuratu, erakutsi eta mantendu

Iñigo Terradillos Leitza

Hainbat astez lanean aritu dira Burdina taldekoak Leitzarango Leitzako zatiaren Tolare meatze barrutian. Bertako lehenengo galeriako karobi eta meategiak zaharberritu dituzte, eta ia herritarrei erakusteko prest utzi dituzte.

Tolarek zortzi lurrazpiko galeria ditu, eta beste bi kanpoaldean. Orain hiru urte hasi ziren barruti honetan lanean, baina kasu hartan, bosgarren meazulo edo galerian. Bertan aurkitu zuten materialarengatik jakin ahal izan zuten XVII. mendean eraikia izan zela.

Bada, zonalde berera itzuli dira, baina oraingo honetan, behaldekotzatian aritu dira lanean, Leitzarango errekararen ertzean. Hiru karobi zahar atzeman dituzte. Horietan, kaliza harria erretzen zen, gatza egiteko. Oraindik ez dakite zein garaitakoak diren, hori Felix Ugarte fundaziokoek argituko diete laster, baina susmoa dute aspaldikoak direla.

Lurrazpiko galeria batean ere aritu dira. 100 metro inguruko luzera du, eta guztia uraz eta lohiaz betea zegoen Burdina taldeko kideak lanean hasi zirenean. Azken aste hauetan kanpoko zuloa garbitu dute, eta ur eta lohia atera, eskuz, pala eta atxurrekin eta hondeatzaile makinarekin. Burdina taldeko 80 boluntario aritu dira lanean, larunbatetan.

Xabier Arruti *Txanka* Burdina taldeko kideak azaldu moduan,

«lan handia izan da, baina bere fruituak eman ditu». Oraingoz bukatutzat eman dute zonalde honetan eginiko lana. «Kanpoaldean geratu den harria eta lohia kentzea geratuko litzateke, eta hori aurreraxeago egingo dugu; behin hori eginda, bideak eta meategietarako sarbideak garbi geratuko lirateke bisitatu ahal izateko».


Arbasoen bizimodua ezagutu

Izan ere, Burdina taldearen helburu nagusietako bat, Leitzarango bailarako ondare historikoren berreskurapenaz gain, hori herritarrei erakustea da. «Leitzarango zonalde honetatik bi kilometro inguruko ibilbide bat osatu nahi dugu, herritarrek euren begiekin ikusi eta ezagutu dezaten gure arbasoen lan egiteko modua nolakoa zen; gure seme-alabek eta ilobek antzina nola bizi ziren ezagutzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, eta hori ezagutarazi nahi dugu; berreskuratu, erakutsi eta mantentzea da gure helburua», adierazi du Burdina taldeko kideak.

Bailara honetan lurrazpian, ahaztuta eta galduta dagoen guztia desestaltzeko asmoa du Burdina taldeak. Gainera, erakundearen laguntza ere badu zeregin honetan. Azken lan hauetan Leitzako Udalarena izan du, eta aldundiaren babesa ere izan ohi du. «Erakundeetako ordezkariak gure lanen emaitzak ikustera joaten direnean txundituta geratzen dira, eta lanean jarraitzera animatzen gaituzte», azaldu du *Txankak*.



Goian, karobia garbitu gabe zegoenean, eta behean, aste batzuen buruan, zaharberritu eta gero. I.T.



Burdina taldeko Xabier Arruti meazuloan sartuta. I.T.

inBEGendentzia

Urriak 13, 17:30ean BARAKALDON EKITALDI NAZIONALA

BOZKATU **ehbildu**

Tolosako Herri Krosaren 25. urteurrena beteko da etzi egingo den lasterketarekin

San Esteban auzoko elkarteak antolatzen du; izena probaren aurretik eman daiteke Shanti Kirolak dendan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako San Esteban auzoko bizilagunen elkarteak herri krosa antolatu du etzirako, hilak 12. Lasterketa berezia izango da, 25. urtez antolatzen baitu elkarteak, baina antolakuntzatik azaldu dutenez, ez da ezer berezirik egingo. «Azken hamar urtetan aurrekontuak kopuru berdinean jarraitzen du», esan dute. San Estebango kultur astearren barruan egiten dute proba, eta hurrengo asterako ekitaldi gehiago antolatu dituzte.

Izena eman nahi dutenek bi aukera dituzte. Batetik, probaren aurretik Shanti Kirolak dendan, zazpi euroren truke, eta bestetik, probaren egun berean, hasiera baino ordu erdi lehenago, 10 euroren truke. Lehen hiru sarituek, bai emakumezkoetan eta baita gizonezkoetan ere, sariak izango dituzte: 150 euro, 90 euro eta 60 euro, hurrenez hurren. Bestalde, helmugara iristen diren lehen 350 korrikalariak kamiseta izango dute opari.

Iaz 360 korrikalari inguruk parte hartu zuten. Parte hartze handia izan ohi du herri krosak, laster izango den Behobia-Donostia probarako prestatzeko erabili ohi dutelako korrikalariak. Antolakuntzak dioenez, urte guzti hauean probaren iraupena auzokideen, Tolosako Udalaren eta babesleen laguntzak bermatu ditu.



lazko Tolosako Herri Krosan, korrikalariak Araba etorbidean. E.MAIZ

Hamar kilometroko ibilbidea, tartean zenbait aldapa aipagarriekin

→ San Esteban auzotik aterako da lasterketa, 11:00etan. Ibilbidea honakoa izango da: San Estebanetik San Joan kalera, handik Soldadu kalea hartu eta ondoren San Frantzisko etorbide-tik jarraitu; Araba etorbidea hartu eta San Esteban auzora itzuliko da ibilbidea; berriro itzuli berdina egingo da, baina Araba etorbidea hartu ondoren auzora jarraituko dute lasterkariak SAMeko zubi-raino, ondoren lurreko biribilgunean Paper kalea hartuko dute eta Amarotz auzoan sartuko da ibilbidea, hortik San Blas auzora igotzeko; handik Izaskun auzora jaitziko dira eta ondoren Kondeko Aldapa hartuko dute; Santa Klara kaletik pasa ondoren, Nafarroako zubia gurutzatuko dute eta Kale Nagusia hartuko dute.

Behin Gorriti plazara iritsitakoan, Barrena kalea hartuko dute; Gorosabel kaletik Trianguloa plaza gurutzatu eta San Frantzisko etorbidea hartuko dute; horren bukaeran ezkerrean hartuko dute Pedro Tolosa kaletik eta ondoren eskuinera joango dira, Berazubi auzotik igarotzeko; lurreamendira igo eta biribilgunean suhiltzaileen parkearen aldera joko dute; aurrera jarraitu eta lurreamendi kaletik lurreko biribilgunea iritsiko dira; SAMeko zubia igo eta eskuinera Araba etorbide-tik joango dira, ondoren ezkerrean egin eta San Esteban auzora sartuz helmugara iristeko. Guztira korrikalariak 10 kilometro egingo dituzte.

Irudia ◊ Alegia



1,5 KILOKO ONDDOTZARRA

Mari Jose Agirre alegiarrak ez du nolana hiko onddoa bildu, irudian ikusi daitekenez (Oier Garaialde alegiarrak du eskuetan). 1,5 kilo ditu zehazki eta perretxikotan badilenak badaki horrelako aleak aurkitzea zein zaila den. HITZA

Festak antolatzen ari dira Larramendi auzoan

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoan festak berreskuratu nahi dituzte, eta egitaraua prestatu dute hilaren 25, 26, 27 eta 28rako. Zenbait ekitalditan parte hartzeko izena eman behar da eta horretarako auzoko Amets tabernan, Plan B tabernan, Txosne okindegian eta Idaberri kafetegian jarrita dau-den orriak erabili daitezke.

Hala, hilaren 27an, larunbata, auzo bazkaria egingo da, eta horretarako txartelak salgai izango dira aipatutako lekuetan, hilaren 16a baino lehen. Bestalde, danborrada egiteko asmoa dute auzota-

rrek, hilaren 27an, helduek eta haurrek parte hartzeko. Danborrada egingo den jakiteko aurretik zenbatek parte hartu nahi duten jakin nahi dute jai batzordekoek. Izen ematea hilaren 16a baino lehen egin behar da. Raid lasterketa ere antolatu dute, hilaren 27rako hori ere, eta horretarako izena hilaren 23a baino lehen eman behar da.

Bestetik, jai batzordetik auzotarren diru laguntza eskatu da festak antolatu ahal izateko. Horretarako, lehen aipatutako lau leku horietan kaxa bana jarriko dute, bertan gutun azal batean diru uzteko.

→ Laburrak

Photoshop ikastaroan izena emateko aukera

AMEZKETA › Photoshop programaren inguruko ikastaroa emango dute Amezketan. Sara Gomez izango da irakaslea eta Photoshop programaren hasitapenean oinarrituta egingo da emango duen ikastaroa. Hamar saio izango dira, eta bakoitzak ordu eta erdi iraungo du. 50 euro ordaindu behar da ikastaroan parte hartzeko. Izena udaletxean eman behar da, eta azken eguna hilaren 11 izango da.

Nafarroa Oinezako autobusa antolatu dute

ALEGIALDEA › Nafarroa Oinez hilaren 21ean izango da. Zizur Txikian, eta autobusa antolatu dute Alegialdetik. Geldialdiak Amezketan (09:10ean Beartzaneko aparkalekuan) Alegian (09:20ak aldera osasun zentroaren aurrean) etalkaztegiatan izango dira ondoren. Itzulera 19:00ak aldera izango da. Izena eman, berriz, Abaltzisketa, Altzo, Alegia, Amezketa, Orendain, Baliarain eta Ikaztegieta-ko udaletxeetan egin daiteke. Hilaren 18a da azken eguna, 12:00ak arte. Helduek 10 euro, eta ikasleek eta langabetuek 7 euro ordaindu behar dute.

Hilaren 20an ospatuko dute Txintzarri Eguna herriko abesbatzek

Ohi bezala, Alegiako Txintzarri eta Txintzarri Txiki abesbatzek kontzertua emango dute

Erredakzioa Alegia

Udazkenean sartuta, Txintzarri Egunerako prestatzen ari da Alegiako Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak. Hilaren 20an izango da. Txintzarri Txiki eta Txintxa-

rri abesbatzek kontzertua eskainiko dute, eta horrez gain, afaria egingo dute aurtun 50 urte betetzen dituen Txintzarri elkartearen. Herriar guztiei dei egin diete Txintzarri Eguneko afarian parte har dezaten.

Parte-hartzearen izpirituari eutsi nahi dio abesbatzak, eta hori dela eta, korduak jakinarazi nahi du, nahi duen orok parte har dezakeela Txintzarri Eguneko afarian. Herri afaria izatea nahi da, kantu-giroa oinarri izango duena. Kantatzea gustuko duten

herriarrek animatu nahi ditu Txintzarri abesbatzak. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

Afarirako txartelak salgai dau-den hilaren 14a arte honako toki hauetan: Landa okindegian, Letamendia kafean, Jubilatuen elkartearen eta Kurpilen.

Txintzarri abesbatzatik azaldu dutenez, «emanaldi erakargarria» prestatzen ari dira egun horretarako. Joan Bataiatzailea Deunaren elizan izango da, ohi bezala, iluntzean.

✉ **Gutuna****Ziztada bat euskararen alde**

Euskarazko Komunikazio Taldeak, Berria Taldea deitzen dugun horrek, *Zure ziztada behar dugu* kanpaina jarri du abian. Leitzako Euskara Batzordeak kanpaina horrekin bat egin nahi du, eta Leitzako herritar eta euskaltzale guztiak ere ekimen horrekin bat egitera animatu nahi ditu.

Euskara hizkuntza bizia eta osasuntsua izan dadin nahi badugu, euskarazko komunikabide sendoak eta biziak ere behar ditugu. Euskaraz bizi nahi badugu, horretarako bitartekoak behar ditugu. Horren aldeko apustua egin behar dugu, beraz, eta are gehiago komunikabide horiek garai zail eta kritikoak bizi dituzten unean. Eta hori da, hain zuzen ere, gaurko egoera. Krisiak gogor astindu ditu bazter guztiak, baita hedabideen arloa ere. Panorama, hortaz, nahikoa zaila da.

Euskarazko komunikabideen beharra, ordea, beti bezain handia eta garrantzitsua da, euskaraz bizi nahi badugu behintzat. Eta badira horretarako aukera eta bidea ematen ari zaizkigun hedabideak, Leitzako Euskara Batzordearen ustez denon laguntza merezi dutenak. Euskararen etorkizuneko ezinbestekoak direnez, gizar-teak berak lagundu behar du horien geroa bermatzen, bere garaian hedabide horiek sortzen eta altxatzen lagundu zuen bezalaxe.

Ziztada kanpainak herritarren sostengua eta bultzada bilatzen du orain arteko eskaintzari eusteko eta proiektu berriak garatzeko. Berri-lagun izateko aukera zabaldu da, eta ahalegin kolektibo horretan 5.000 lagun ziztada lortzeko apustua egin dute. Leitzako Euskara Batzordeak dei egiten dizue denei apustu horretan parte har dezazuen, eta Berri-lagun izateko urratsa eman dezazuen.

www.berria.info/berri-laguna helbidean aurkituko duzue horren inguruko informazio zehatza. Animo, beraz, eta parte hartu euskararen aldeko ekimen honetan.

■ **Leitzako euskara batzordea.**

Udal taldeak bosgarren herri batzarra egingo du bihar, Berastegin

Iñigo Terradillos Berastegi

Berastegiko udal taldeak bosgarren herri batzarra deitu ditu herritarrek, biharko. Muñagorri eskolako ganbaran izango da, 21:00etan hasita, eta ondorengo gaiak jorratuko dituzte: udaletxearen zaharberritze-lanen jarraipena; Hiri Antolamendurako Plan Orokorren onarpena; Espainiako bandera jartzeko agindua; zabor-bilketaren inguruko bileren balorazioa eta bestelako zalantzak.

Berastegiko udal taldetik adierazi dutenez, «herritar guztien partaidetza eta elkarlanarekin» egin nahi dute aurrera, horregatik, berastegiar guztiak animatu dituzte parte hartzera.

Estrasburgok asteartean aterako du Otamendiren salaketaren epaia

Erredakzioa Tolosa

Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak ohar bidez jakinarazi du Tolosako Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkariako* zuzendari ohiaren eta BERRIAko zuzendariaren tortura salaketaren inguruko epaia urriaren 16an kaleratuko duela, gaur zortzi. Behin Espainiako Justizian bide guztia amaitu ondotik, Otamendik 2008an Estrasburgoko Auzitegiara jo zuen, Egunkaria auziko operazioan Guardia Zibilaren esku atxilotuta egon zenean jasandako tortura eraginkortasunez ez ikertu izana argudiatuta. Iazko irailean onartu egin zuen Giza Eskubideen Auzitegiak eskaera, eta epaia datorren astean kaleratuko du.

Bere eskaeran, Otamendik Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 3. artikulua urratu izana egozten dio Espainiari. Giza Eskubideen Auzitegiaren arabera, tortura kasuetan ikerketa eraginkortasunez egitea behartuta daude estatuak. Argudiatzerakoan, Iñigo Iruin abokatuak Aritz Beristain eta Mikel San Argimiroren kasuak hartu ditu erreferentzia gisa, bietan auzitegiak ikertzeko betebeharrak urratu zela baieztatu zuelako Estrasburgok. Iaz, Estatuaren abokatuari urtebeteko epea eman zion, eta legegariak urtarrean aurkeztu zituen alegazioak. Ukatu egin zuen tratatu txarrak egon zirela, eta argudiatu zuen ezin dela esan «salaketa ikertzeko betebeharraren omisiorik egon denik».

→ Laburrak**Lapurdikoa Luhuso herrian ariko da etzi, Alurr taldea**

IBARRA ▶ Alurr dantza taldeak emanaldia eskainiko du etzi Lapurdiko Luhuso herrian. Bertan, Luhuso, Ezpeleta, Itsasua eta Arrangoitzen izango den Herri Uzta ekimenaren barruan ariko da Ibarako taldea. Ezpeletako Ezpela taldea, Baigorriko Tema konpainia eta Uztaitzeko Burrunka taldea ariko dira etzi gauetan izango den emanaldian. Alurr dantza taldeko Oinazez izango da Luhuson ariko dena. Aiert Beobidek gidatzen duen taldeak Soinaz ikuskizuna eskainiko du, *Sua, Oinazez eta Izanak dirau* ikuskizunak batuz sorturikoa. Etzi eskainiko du dantza saioa Alurrek, baina asteburu osoa igaroko dute Lapurdiko herrian.

Datorren larunbatean du finala Otaño aizkolariak

IBARRA ▶ Datorren larunbatean, hilaren 20an izango da Urrezko Aizkolarien finala, Bilboko Esperanza pilotalekuan. Bertarako Unai Otaño ibartarra sailkatua dago, eta berarekin batera, Aitzol Atutxa. Bada, finalaren aurreko Urrezko Aizkolarien azken kanporaketa larunbat honetan jokatu dute. Ugaitz Mugertzak eta Floren Nazabalek. Kanporaketa horren ostean geratuko da erabakita finala.

Astelehenetan izango da dinamizatzailea KZ Gunean

BERASTEGI ▶ KZ Gunean 09:00etatik 13:00etara izango da dinamizatzailea, urrian zehar, astelehenetan, hau da, hilaren 15ean, 22an eta 29an. Une hori erabili ahaliko dute erabiltzaileek euren zalantzak argitzeko. Bestalde, hainbat kurto egiteko aukera izango da doan, KZ Gunean. Dinamizatzailearekin hitz egin behar dute ikastaroren bat egiteko interesa dutenek.

Irudia ◦ Gaztelu**GABIRONDO TXAPELDUN SEGA PIKATZEN**

Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia izan zen igandean Andoainen, hain zuzen ere, bertako Aita Larra mendikastolaren alde. Bada, izan ziren ehunka ekitaldien artean, Euskal Herriko Segapikatze Txapelketa ere jokatu zuten. Bertan 27 parte har-

tzaille izan ziren, Euskal Herrikoak, nahiz gure mugaz kanpokoak, kataluniarrak edota suitzarrak, kasu. Irabazlea Joxe Gabirondo gazteluarra izan zen, eta laugarren Sarasola Anoetarra sailkatu zen. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	21°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Zizurkil



HERRITARRAK ARTISTA BIHURTUTA

Zizurkil Goiko Iriarte kultur etxean Herritarrak Artista izeneko elkartasun erakusketa bisitatu daiteke igandera arte. Erakusketa Herrirak antolatatu du, eta ostirala arte 18:00etatik 20:00etara bisitu

tatu ahal da; larunbatean 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara; eta igandean, 12:00etatik 14:00etara. Eskulan eta artelanak ikustez gain, erosi ahal izango dira. R. CALVO

Agurak



Zorionak mutikote!

Erik Aranzabal Kortejarena. 7 urte! muxu handi-handi bat Oihan, ama, aita, eta familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurak**

Agenda

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Udalak Kultur eta Kirol Astea antolatuta nahi du azaroaren 12tik 18ra, eta horren inguruko bilera egingo du gaur, 19:00etan udaletxean.
- **Tolosa.** Hauteskundetako bozka posta bidez bideratu nahi duten herritarrei laguntza eman nahi die, EHBilduk. Horretarako, Tolosako alkartetxera zuzendu behar da gaur, 11:00etatik 13:00etara.
- **Anoeta.** Qi-Gong ikastaroa martxan jarriko du urritik abendura, udalak. Oraindik tokia gertatzen da, eta interesatuek udalera eman dezakete urriaren 17a bitartean. Irakaslea Jone Arrospe izango da, eta menopausiaren bueltan dabilzan emakumeentzako da. Klaseak egun hauetan izango dira: urriak 18, azarok 8 eta 22, abenduak 13 eta 20 (edo 27), 18:30etik 20:30era. Mikelasagasti auditorioan izango dira, 45 euroren truke.
- **Tolosa.** Inmakulada ikaste-txean begirale ikastaroa egingo da urritik ekainera. Ostegunetan 15:00etatik 20:00etara izango da. Informazio gehiago 944 35 43 40-ra deituz edo aisiola@ilkastola.net-ra idatziz.

- **Tolosa.** Antxon Bandres Bidaierien Txokoa, urriko asteazkenetan, bidaia blogak nola egin irakatsiko da. 18:00etatik 20:00etara izango dira klaseak, eta wordpress bidez bidaia blog bat egiten ikasiko da, doan. bidaiari@bidaiarientxokoa.info helbidera idatziz edo 688 810 598 telefonora deituz eman daiteke izena.

HAUTESKUNDEAK

- **Tolosa.** EHBilduk mitina egingo du, gaur, 19:00etan, Beotibar frontoian. Xabier Isasi eta Pello Urizar izango dira hizlariak.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien etairtziaren erantzukizunik.



Mauka berria

Laster...

planik onenak egunero, bertatik bertara!

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura

Abantailak izena ematen duten lehenengoentzat

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Erosi bidaiak agintzeren eskutik
EROSKI/bidaiak
merkezi doan

www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria. Harluak Hitzei Enziklopedikoa

